

Zientzia eta teknologia


JOXERRA AIZPURUA

E-book irakurgailu malgua jadanik kalean

WEXLER ENPRESAK lehen irakurgailu malgua komertzializatu du, oraingoz Errusian. Egia da ezin dela egunkarien antzera lauzpabost tolesturatan bildu, baina ildo horretan lehen urratsa izan da. Flex One izeneko irakurgailuaren pantaila LG enpresa korearrak ekoiztu du.

Irakurgailuaren bereizmena 1024 x 768 pixelekoa da eta 15,1 zentimetroko altuera, 13,4 zentimetroko luzera eta lau milimetroko zabalera ditu. Bateriak bi asteko autonomia du eta, iPad motako tabletetan ez bezala, tinta elektronikoaz baliatzen da hizkiak erakusteko; beste hitz batzuetan esanda, tinta karga elektrikoek sortzen dute. Karga horiek erakartzen direnean pantailaren lehen mailara ekarri eta ikusgai gertatzen dira, eta beste batzuetan kargak urrutiratu, pantailaren azken ilarara bidali eta ikusezin bilakatzeko bidaltzen dira.

Flex One-n tolestura gaitasuna ez dela handia aipatu dugu arestian, baina nahikoa da kolpeei beste edozein irakurgailu baino erresistentzia hobea izateko.




THE-DIGITAL-READER.COM



Algen garrantzia karbono metaketan

NAZIOARTEKO ikerketa talde batek argitaratu eman ditu itsas algek karbono metatzeko daukaten gaitasunari buruzko lan baten emaitzak. Ikerlari horien arabera, algek kilometro koadroko 83.000 tona karbono pilatzen dute itsas hondoan. Lehorreko ohiko baso batek kilometro koadroko 30.000 tona finkatzen du, gehiena zuhaitzen enborrean metatua; algek, berriz, zoruan finkatzen dute karbonoa.

Algek itsas hondoaren %0,2 baino ez dute okupatzen, baina uste denez, itsasoak metatzen duen karbonoaren %10 beraiei esker pilatzen da. Ikerlarien arabera, algek sustraietan eta inguruko lurretan finkatzen dute karbonoa; gainera, milaka urtetan aritzen omen dira lan horretan.



PULSOVERDE.NRDC.ORG



Grafenozko eguzki-xafiak

Eguzki-energia elektrizitate bilakatzeko bidean efizientzia da errentagarritasunaren neurgailu garrantzitsuenetakoa. Jakina da eguzkitik datorren energiaren zati txiki bat baino ez dutela xaflek eskuratzen. Grafenoarena da efizientzia hobetzeko azken urteetan hasitako bidea.

ttiki.com/40459 (Gaztelaniaz)

Elektroiak atomotik ihes egiten duen unea grabatu dute

Ikerlari talde batek elektroien atomotik ihes egiten duen unea grabatu du. Ihesaldi hori, aurkakoa uste bazen ere, ez da bat-batekoa izan; aitzitik, astiro-astiro gertatu da. Ikerlariak atomoa ioi bilakatzen ikusi dute, baita elektroia aske gertatu deneko unea ere.

ttiki.com/40460 (Gaztelaniaz)

Segundoaren izaera eztabaidagai

Ekainaren 30eko azken minutuak 61 segundo izan zituen zientzialari askoren ustez. Munduan dauden 450 erloju atomikoetan baino ez da gehitu segundo hori, eta arrazoiak ordularien higiduraren eta Lurraren errota-abiaduraren arteko desfasea da; baina zientzialari guztiak ez datoz bat.

ttiki.com/40461 (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16